

Jarduera Plana

2009

Kulturaren Euskal Behatokia





Kulturaren Euskal Behatokia
2009ko Jarduera-Plana

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
1. INFORMAZIO-SISTEMA	3
1.1. Eragiketa estatistikoak.	3
1.2. Azterketa estatistikoak.....	5
1.3. Nazioarteko behatokiekin sarean egindako lana.....	6
1.4. Kulturaren Euskal Plana ebaluatzeko adierazleak.....	6
2. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK.....	7
2.1. Komunikazioa eta hedapena.	7
2.2. Erakundeekiko eta sektoreekiko harremanak.....	9

AURKEZPENA

2009. urtean beste ziklo bat hasi da Behatokiarentzat. Epe Iuzeko kultura-proiektu gisa sorturiko tresna da Behatokia, eta, proiektu horretan, aztertu behar den errealtitatean parte hartzen duen eragile bat da informazio-sistema. Hasierako helburu horrek zehazten du *a priori* behatokiak duen posizioa: eskala handiko ikuspena sektoreen berezitasunekin konbinatu behar du, eta informazio-sistema, datu zehatzekin.

Alde batetik, Behatokiaren ekarpen bat izango da informazio erabilgarria eta bat datorrena eskaintzea, kultura-sektoreen errealtitateak dituen berezitasunak islatzen dituena. Oinarritzko informazioa sortuko da eragiketa estatistiko berrien bidez, informazio-iturrien fidelizazio lanarekin jarraituko da, eta informazioa tratatzeko tresnen baliagarritasunak hobetuko dira.

Bestetik, Behatokiak oso kontuan hartzen du fenomenoak interpretatzeko —errealtitatea ulertzeko— beharra, bereziki gaur egun dugun zalantzazko testuinguru honetan. Zaitasuna honetan datza: soilik egoeraren araberakoa dena egiturazko aldaketetatik bereiztean, joerak igartzean, datuen atzean dauden logikak eta esanahia ulertzean; zaitasun hori handiagoa da paradigmenearteko trantsizio-une batean gaudelako eta eguneroko lanak distantzia eza dakarrelako. Arrazoi horiengatik, nahitaezkoa da hausnarketarako esparruak indartzea; hots, 2009rako aurreikusten den lan-agenda betean, hainbat eskalatan, beren lekua bilatuko duten laneko sareak indartzea.

Informazioa eta ezagutza sortzeko lana areagotzeak zuzeneko eragina du Behatokiak informazioa zabaltzeko egin beharreko lanean. Informazioa zabaltzeko bide nagusia webgunea izango da oraingoan ere: hango datu-bankuak baliagarritasun handiagoa izango du. Era berean, nabarmen igoko da Behatokiak bere jarduera ezagutarazteko argitaratzen dituen argitalpenen kopurua, baita oraingo zikloak eskatzen duen harreman-jarduera ere.

Jarraian zehaztuko dira 2009an sustatu behar diren proiektuak. Proiektu horiek bi ardatzen inguruan antolatuko dira: informazio-sistema eta komunikazioa.

1. INFORMAZIO SISTEMA

Behatokiak, bere ibilbideren lehenengo fasean, kultura-estatistikaren esparrua diseinatu eta kontrastatu zuen. Ikuspegি sistemiko batetik behaketaren mugak eta helburuak ezartzen dituen mapa da esparru hori. 2009an, jada hasita dauden bi ikerketa-ildo osagarriak finkatuko dira: eragiketa estatistikoak eta azterketa estatistikoak; horiek, metodologia desberdinak erabiliz, helburu bera dute: informazioa eta ezagutza sortzea. Haien helburua da kultura-sektoreei buruzko informazioa jaso eta aztertzea, kultura balioztatzeko orduan bereizten diren mailak kontuan hartuz, zeharkako ikuspegia ahaztu gabe.

Horrela, urteko lehen seihilekoan lehen aldiz edukiko da EAEko kultura-ekoizpenaren egoerari buruzko deskribapen bat, arte eszenikoei, musikari, ikusizko arteei eta ikus-entzunezkoen industriari dagokienez. Era berean, kultura-ondareari (liburutegiak eta museoak) buruz jada eskura dagoen informazio estatistikoa artxiboen eragiketa berriarekin osatuko da. Zeharkako aztergaiak kulturaren finantzaketa eta gastu publikoan, eta euskararen ekoizpenaren eta eskariaren arteko analisi konparatuan oinarrituko dira.

Bestetik, sakondu egin nahi da euskararen eta kulturaren egoerari buruzko azterketan; kultura-sormenari buruz; kulturaren arloko enplegu eta lanbideei buruz eta talde jakin batzuen kultura-ohiturei buruz. Gai horiek hausnartu eta kontrastatuko dira, bereziki, ibilbide profesional ezaguna duten bertako nahiz nazioarteko aditu, ikertzaile eta erakundeekin. Behatokia izango da lan egiteko sareak eta topaguneak sortzeko katalizatzailea, eta tresna horiek kultura-errealtitatea (globala nahiz bertakoa) ulertu eta interpretatzen lagunduko dute.

Bistakoa denez, informazio-bolumen handia kudeatzeak eskatzen du tresna teknologiko egokiak aplikatzea datuak kalitatearekin eta denbora egokian eskuratu ahal izateko.

1.1.

ERAGIKETA ESTATISTIKOAK

Arteei eta kultura-industriei buruzko eragiketa estatistikoak

Behatokiak urteko lehen seihilekoan emango ditu ezagutzera EAEko arteei eta kultura-industriei buruzko estatistikien emaitzak. Eragiketa horiek erregularki eta bi urtez behin egingo ditu, Eustatekin elkarlanean. Lehenengo aldiz, informazio xehatua edukiko da arte eszenikoen, musikaren eta ikusizko arteen ekoizpenari eta erakusketari buruz. Industrien kasuan, disketxeen eta ikus-entzunezkoen ekoizpenaren informazioa biltzen ari da.

Urrats garrantzitsua da informazio erabilgarria, osatua eta eguneratua izatea. Hori beharrezko baldintza da sektoreei buruzko analisiak eta interpretazioak datu errealetan oinarritzeko.

Artxiboen eragiketa estatistikoa

Artxiboen eragiketak kultura-ondareari loturiko informazio-mapa zabaltzeko asmoari erantzuten dio. Eusko Jaurlitzako Kultura Saila, zehazki Kultura Ondarearen Zuzendaritza, aspalditik ari da liburutegi publikoen eta museo eta bildumen estatistikak egiten. Hori horrela, berehalako estatistika-erronka artxiboen jarduera deskribatzea da. Jarduera horiek memoria kolektiboa jaso, gorde eta hedatzera bideraturiko zerbitzuak dira.

2009an, Behatokiak, Irargirekin lankidetzen, eragiketaren metodologia-diseinua egingo du, informazioa jasotzeko galdegegiak osatuko ditu, eta landa-lana egiten hasiko da.

2009KO EMAITZAK

Arteei eta kultura-industriei buruzko eragiketen emaitzak hedatzeko berariazko produktuak

Artxiboen estatistikaren bideragarritasun operatiboaren proposamena

EAEko finantzaketari eta gastu publikoari buruzko eragiketa estatistikoa

2009an ikerketa bat egingo da, EAEko administrazio publiko nagusiak kulturan egiten ari diren ekarpen ekonomikoen eta inbertsioen tamainaren ikuspegi bat emateko eta inbertsioetan egiten den ahalegin horren ikuspegi konparatu bat izateko, biztanleekiko ratioak kontuan hartuta. 2009an, erakunde hauek aztertuko dira: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta hiru hiriburuak. Era berean, udal-teknikariek osaturiko lantalde bat sortzea ere aurreikusten da. Lantalde horrek azterketaren planteamendua aztertu eta egokituko du, 2010ean EAEko udalen lagin adierazgarria gehitzeko.

2009KO EMAITZAK

EAEko kulturaren finantziazoari eta gastu publikoari buruzko estatistikaren emaitzak hedatzeko berariazko produktuak

1.2.**AZTERKETA ESTATISTIKOAK****Euskara euskal kulturan**

Behatokia bultzatzen ari den eragiketa guztieta jasotzen da euskara. Orain arte garrantzi handia izan du, bai *Kultur ohitura, praktika eta kontsumoari buruzko 2007-2008ko estatistikan*, bai sektoreei buruzko estatistiketan. Beraz, baditugu datuak euskarazko produktuen kontsumoari eta eskariari buruz eta baita gaur egun dagoen euskarazko kultura-eskaintzari buruz ere. Hala ere, Behatokiak bereziki adierazi zuen bere esparru estatistikoan hori aztergai berezia eta nagusia dela, eta, orain arte egin den azterketa zatitua gaindituz, ikuspegi osatuagoa eskatzen duela.

Azken batean, 2008an egin zen azterketa-diseinuaren proposamenean planteatzen zen bezala, deskribapen kuantitatibo bat egingo da, iritzi espezializatuen bidez eginiko analisi kualitatiboekin hornituta.

2009KO EMAITZAK

Euskara eta kulturaren azterketaren emaitzak hedatzeko berariazko produktuak

Kultura-sormena

Urteko lehen hiruhilekoan amaituko da Behatokiak 2008an hasi zuen kultura-sormenaren analisia. Sormenari laguntzeko politiken azterketa egiten ari da, bai nazioartean, bai EAEn. Diagnostiko konparatutik (esparru horretan adituak direnek parte hartuko dute diagnostiko horretan) ateratzen diren ondorioek hausnarketa egiten lagunduko dute sormena babestu, sustatu eta laguntzeko erakundeek eginiko ahaleginari buruz.

Kultura-arloko enpleguak eta lanbideak

Sormenaren azterketa osatzen duen azterketa da. Kultura-arloko enpleguen azterketa oinarri hartuta, kultura-arloko lanbideen errepertoriola hurbilketa egitea du helburu. Esparru horretan dauden nazioarteko esperientziak aztertuko dira, eta EAEn eskuragarri dauden informazio-

iturriek ematen duten ikuspegia aztertuko da. Metodologiari dagokionez, adituek ere hartuko dute parte eta azterketaren ondorioak baloratuko dituzte.

2009KO EMAITZAK

Azterketen emaitzak hedatzeko berariazko produktuak

1.3.**NAZIOARTEKO KULTURA-BEHATOKIEKIN LAN EGITEKO SAREA**

Kulturaren Euskal Behatokiak ibilbide ezaguna duten beste erakunde batzuekin batera estuki lan egiten jarraituko du. 2007an hasitako harremana aurten gauzatuko da, II. Nazioarteko lan-jardunaldietan sortutako guztien intereseko gaietako bati buruz sarean lan egiteko proposamen batekin. Laneko esparru horrek balioko du ez bakarrik Kulturaren Euskal Behatokiaren lana finkatu eta beste errealitate batzuetara irekitzeko, horrek dakarren ikaskuntzarekin, baita hiritarren kultura-ohituren ezagutzan abangoardiako ikerketak garatzeko ere.

2009KO EMAITZAK

Sarean batera egiteko ikerketa-proiektua

1.4.**KULTURAREN EUSKAL PLANA EBALUATZEKO ADIERAZLEAK AUKERATZA**

Kulturaren Euskal Plana ebaluatzeko balioko duten adierazleak identifikatu ondoren, Behatokiak sustatzen dituen eragiketetan sartzeko proposamena egingo da.

2. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

Orain arte, Behatokiak jendearengana irekitako komunikazio-politika izatea erabaki du; gainera, informazioa sortu ahala, eskari hori handitu egiten da. Beraz, Behatokia egiten ari den lana islatuko dute webguneak, buletin elektronikoak, paperezko argitalpenek eta argitalpen digitalek, laneko eta harremanetako guneek.

Kanal eta euskarri digitalek aurrera egin dute, gero eta gehiago erabiltzen dira, eta abantailak eskaintzen dituzte: bizkortasuna, informazioa hedatzeko gaitasuna eta kostu txikiagoa; hala ere, Behatokiak bere ikerketarik garrantzitsuenak paperean argitaratzen jarraitu nahi du, paperaren izaera fisikoak irakurleari erosotasuna eta kalitatea eskaintzen baitizkio. 2009an beste hiru argitalpen egingo dira paperean: arteei eta kultura-industriei buruzko estatistika berrien emaitzak eta Kultura 08-09 urtekaria.

Interesa dutenek webgunean dute sortzen ari den ezagutza guztia. Hori da Behatokian sartzeko bide nagusia, erregistratzen diren bisitek egiaztatzen duten bezala. Azterketen emaitzen argitalpenak ditu, Kulturkaria buletina, Behatokiaren datu-bankua, intereseko estekak, berriak, etab.

Azkenik, lantaldeak, hausnarketa-foroak eta jardunaldiak antolatzen ditu Behatokiak, bere harreman-jardueraren barruan. Informazioa hedatzeko eta ikaskuntza partekatzeko guneak dira, proiektua aberastu eta hari esanahia ematen diotenak. Ildo horretan bertan, Behatokia jasotzen ari den eskariei ematen zaien erantzuna azpimarratu behar da. Horiei esker, Behatokiak onuradunen profil guztientzat duen baliagarritasuna neur daiteke, hasi zientzialarien komunitatetik eta sektoreko eragileetaraino.

2.1. KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

Argitalpenak

KULTURA 08-09 urteko txostena

Hori da Behatokiaren jarduera deskribatzen duen emaitzarik garrantzitsuena. Beraz, bigarren urteko txosten horren ezaugarria edukien aberastasuna eta anitzasuna izango da. Oraingo

honetan, monografikoak kultura-arloko kontsumoa hainbat ikuspegitatik aztertuko du nagusiki. Adituei gonbidapena egingo zaie *Kultur ohitura, praktika eta kontsumoari buruzko 2007-2008ko estatistikaren* emaitzak interpretatzen sakondu dezaten. Bigarren zatian, gaur egun dagoen kultura-informazioa balioztatuko da, bereziki nabarmenduz Behatokiak berak sorturiko informazioa.

Kulturari buruzko estatistiken eta azterketen bilduma

Ohiko inkestetan emaitzen sintesia aurkeztuko dute. Ekitaldi honetan, beste bi bolumen argitaratuko dira paperean, arteei eta kultura-industriei buruzko estatistiken inguruan, hurrenez hurren. Era berean, azterketa hauek argitaratuko dira argitalpen digitalean: Finantzaketa eta gastu publikoa, Euskara eta kultura, eta Kulturaren arloko sormena eta enpleguak.

KULTURKARIA buletin elektronikoa

2009an beste lau zenbaki argitaratuko dira. *Kulturkaria* da, oraindik ere, Behatokiaren lanak hedatzeko biderik garrantzitsuenetakoak. Behatokiaren jarduerez gain, bertako nahiz nazioarteko esperientziak, programak, argitalpenak eta hausnarketak ere ezagutarazten dira.

2009KO EMAITZAK

Euskal Herriko kulturaren txostena (Kultura 08-09) argitaratzea eta zabaltzea.

Eragiketa eta azterketen emaitzak argitaratzea eta zabaltzea: kulturari buruzko estatistiken eta azterketen bildumak

Kulturkaria buletin elektronikoaren hurrengo lau zenbakiak argitaratzea eta zabaltzea

Webgunea

Gehitzen goazen informazio bolumena asko handitzen doanez, berrikuntza nagusienetako bat da estatistika-informazio guztia dinamikoki konsultatzeko datu-bankua on line eskuragarri izatea. Erabiltzaileak bilaketak bere beharretara bideratu eta doitzeko tresna bat du; horregatik,

abantaila nabarmenak eskaintzen ditu doitasuna, aurkezpena eta informazioaren tratamenduari dagokionez.

2009KO EMAITZAK

Etengabe eguneratzen den web-orria

2.2. ERAKUNDEEKIKO ETA SEKTOREEKIKO HARREMANAK**Hedapen-, kontraste- eta hausnarketa-jarduerak**

Hainbat eskalatan egiten ari den hedapen-jarduera islatzen dute beste kultura-behatoki batzuekin egingo diren III. Nazioarteko jardunaldiek, sustatzen ari diren azterketak modu presentzialean edo elektronikoan lantzeko eratuko diren lantaldeek, emaitzen aurkezpenek eta abarrek. Ikertzaile, aditu eta egunero kulturaren esparruan lan egiten duten pertsoneneko harremana sustatuko da, haien jakintzatik ikasteko eta datuez egin daitezkeen irakurketak (baloraziozkoak eta interpretaziozkoak) sakon aztertzeko. Jarduera hori handitu egingo dela aurreikusten da, jada 2009an dagoen informazio-kopurua kontuan hartuta.

2009KO EMAITZAK

Taldeak, jardunaldiak, aurkezpenak... antolatzea eta haietan parte hartzea

Kontsultei eta informazio – eskaerei erantzutea

Behatokiak oso garrantzitsua deritzo kontsultei eta informazio-eskaerei erantzuteko zerbitzua egiten ari den jarduerari; izan ere, Behatokiaren ezagutza balioztatu eta erabiltzaileen eskura jartzen dela esan nahi baitu. Zerbitzu hori hedatu egingo dela uste da, Behatokia eta haren gaitasunak ezagutu ahala.

2009KO EMAITZAK

Lankidetza-hitzarmenak, proiektu partekatuak, aholkularitza teknikoko zerbitzua